

# Berrasmatzea berrarmatzea

## KONTZERTUA

ANTTON ARANBURU ETA BIKIAK  
JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK

Urriaren 6an, Gasteizko Gaztetxean  
*Muinoko Hotsak* egitasmoaren barruan  
eskainitako emanaldia.

Joseba Tapia eta Besamotzak taldearen  
hurrengo emanaldia: azaroaren 18an,  
Donostiako Bukowskin,  
Info7 irratiaren 10. urteurrenko festan.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

Joseba Tapia izango da gure panorama-ko musikaririk emankor eta aldi berean kamaleonikoenetako bat. Soinujole moduan bazterrak irauli zituen 1980ko hamarkadan, eta, oraintsu arte, halaxe jardun du diskoz disko, proiektuz proiektu aurrez egindakorik egin gabe, bere bidea asmatzen eta berrasmatzen.

Soinua utzita, gitarra lagun etorri zen Gasteizko Gaztetxera ere, Gaztetxeak berak eta Hala Bedi Irratiak elkarlanean antolatutako *Muinoko Hotsak* kontzertu zikloaren baitan, proiektu berria eskutan: Joseba Tapia eta Besamotzak.

Giroa berotzeko lanak gasteiztartutako Antton Aranburu eta Bikiak taldeak hartu zituen, eta pop kutsuko kantu akustikoak eskaini zituzten, hirukotean: bateria, kontrabaxua eta gitarra. Ordu-bete eskaseko tartean, sorta dotorea utzi ziguten, eta beste batean entzuteko gogoa piztu, leku itxiago batean, agian.

Tapiak eta lagunek, berriz, ez zeukaten inoren gogoa pizten ibili beharrik,



DOSPORDOS

zenbait soinu probetara ere azaldu bainkinen oraingoan zerekin zetorren jakiteko gogoz. Rock laukote estandar bat, gitarra joleetako batek tarteka soinua hartzen duela, ez Josebak.

Ordu eta laurden pasatxoko tartean, lasartearrak bere ibilbideari errepasoa eman zion, ia disko guztietako kantuak joz. Izan ziren *Real Politik*-eko *Zoragarria ez al da*, edo *Quebec*-eko *Maitetz*, eta, nola ez, aspaldiko *Besamotzarena* ere. Denak, jantziz aldatuta; zenbait jatorrizkotik gertuago, beste zenbait ia ez ezagutzeko moduan. Nolabait ere, hainbeste aldiz jotako kantuak beste era batean jota ere kantu borobilak direla adieraziz.

Bere ohiko instrumentua aparte utzi izanak harridura sortu zuen bere garaian, *Tximela Kapitainari* ahotsa jarri zionean, nahiz eta berak esanda, *Tapia eta Leturia Band*-en kantuak gitarra lagun konposatzen zituen. Gitarrarekin ari da oraingoan ere, baina jotzeko mo-

dua soinujolearena dela esango nuke; izan ere, trikitian ohi den moduan arituzen: kantari ez zegoenean melodia gitarra elektrikoarekin eginez, gehienetan Wah Wah pedalaz lagunduta, rockero asko.

Taldea, oro har, hasiberri xamar zegoela iruditu zitzaidan; nahiz eta taldekide guztiek nork bere kasa ordu asko emanak izan taula-gainean, Besamotz moduan emanaldi batzuk gehixeago behar dituztelakoan nago, eta ulertze-koa ere bada soinujole eta guzti lehenengo baitzuten.

Oraingoz kantu berririk ez du agindu Josebak, ezta disko berririk ere. Plazara atera da berriz, eta hantxe defendatuko ditu, hainbat taula, mandio eta gaztetxetan lehenago ere defendatutako kantuak. Finean, sekula jotakorik jo ez duen artista baten beste pauso bat da hau, epelera joko ez duen artista batena, eta inor epel utziko ez duen berrarmatzea. Niri gustatu zitzaidan. ■